



Eskola Kirola – 2019-2020ko lehiaketa araudia

ESKRIMA

1. artikulua.- Klubek, ikastetxeek, beste erakunde batzuek edo Arabako Eskrima Federazioak antolatzen dituzten eskrimako eskola lehiaketa ofizial guztiek arautegi hau bete beharko dute.

2. artikulua.- Antolaketa

- 2.1. Klubek eskatu ahalko diote Arabako Eskrima Federazioari, egutegia ofiziala onartu baino lehen eta irailean zehar, antolatzeko Arabako Eskola Ligako lehiaketa ofizialak. Eskatzen den Arabako eskola lehiaketa bakoitzeko lehiaketa federatu bat antolatzeko eskatu beharko dute.
- 2.2. Epe barruan zenbat eskaera aurkezten den, zuzendaritza batzarrak denboraldiko lehiaketen banaketa proposatuko du, ahaleginduta betiere bidezko banaketa egiten klubuen eta entitate bakoitzak antolatu beharreko eskola/federatu lehiaketen artean, kontuan hartuta aurreko antolaketak. Banaketa batzar orokorrak berretsi beharko du egutegia onartzen denean.
- 2.3. Edozein entitatek (kluba edo federazioa izan) edozein lehiaketa ofizial antolatzeko, hauxe bete beharko du:
 - a) Zuzendari teknikoa izendatu. Zuzendari teknikoak, gutxienez, ezpatako arbitro autonomikoaren titulua izan beharko du.
 - b) Arbitroak izendatzeko, esperientzia nahikoa eduki behar dute arbitraje lanak behar bezala egiteko. Probako arbitro guztiek 16 urte edo urte gehiago eduki beharko dute. 18 urtetik gorakoek altan egongo dira arbitro modura Aldundiaren Eskola Kirola aplikazioan; betekizun hau ez da ezinbestekoa 16 eta 17 urteko arbitroentzat.
 - c) Garaikurrak hautatu eta erosteko 4.14 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.
 - d) Lehiaketan izena eman eta hura prestatu.
 - e) Eskola Kirolaren barruan proba bakoitzerako dauden kategoria guztiak antolatu (ikus 4.1 artikulua).
 - f) Deialdiaren datuak (lehiaketa eguna, ordua, lekua eta kategoriak) bidaltzea AEFra lehiaketa izango den asteburua baino lau aste lehenago, gutxienez. Deialdia AEFk onartu behar du, eta gero Arabako klubei bidaliko die hark.
 - Deialdia egin eta gero, hango datuak bakar-bakarrik aldatu ahal izango dira arrazoi hauetako batengatik:
 - i. Azken orduko aldaketaren bat dela eta, egutegi nazional ofizialeko beste ekitaldi batekin bat datorrenean eta parte hartzaileei eragin ahal dienean.
 - ii. Lehiaketa egin behar zen instalazioak ustekabean ixtea.
 - iii. Arabako Foru Aldundiak hala ezartzen duenean.
 - iv. Ezinbesteko kausengatik, AEFko zuzendaritza batzarrak balioztatuko dituenak.
 - g) AEFra bidaltzea sailkapenak eta lehiaketa akta, zuzendari teknikoak izenpetua, lehiaketa egin eta hurrengo astelehena baino lehen. Torneoko gainerako datuak (pouleak, pouleen sailkapena eta koadroak) ekitaldia egin eta zazpi egun igaro baino lehen bidali beharko dira. Lehiaketaren aktak, gutxienez, datu hauek jaso



behar ditu:

- i. Izena emandakoen kopurua kategoria bakoitzean.
 - ii. Parte hartzaile kopurua kategoria bakoitzean.
 - iii. Gorabeherak, egonez gero.
 - iv. Zuzendari teknikoaren izen-abizenak eta izenpea.
- 2.4. Erakunde antolatzaileek parte hartuko duten erakundeei eskatu ahal izango die ekipamendua utzi dezatela (erruloak, kableak eta markagailuak), baina inolaz ere ezin die halakorik exijitu. Erakunde antolatzaileek jasoko duten AFaren dirulaguntza halakoetarako erabili beharko dute, behar izanez gero. Federazioak erakunde antolatzailearen eskura jarriko du erabilgarri duen ekipamendu guztia.
- 2.5. Erakunde antolatzaileek parte hartuko duten erakundeei eskatu ahal izango die beraiek izatea arbitroak eramaten dituztenak, baina inolaz ere ezin die halakorik exijitu. Erakunde antolatzaileek jasoko duten AFaren dirulaguntza halakoetarako erabili beharko dute, behar izanez gero.

3. artikulua.- Izena ematea

Eskrimako eskola lehiaketetan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira: Arabako Foru Aldundiak ezarritako eskola lizentzia eduki; kategoria bakoitzerako xedatutako adin baldintzak bete; eta txapelketetan izena eman, egoki den araudiaren arabera.

Erakunderen batek sexu ezberdineko eta kategoria bereko tiratzaile asko eramaten baditu, erakunde antolatzaileari horren berri emango dio behar besteko aurrerapenaz, sari kopurua eta muntatu beharreko pista kopurua ezar ditzan.

4. artikulua.- Lehiaketak egiteko era

- 4.1. Txapelketetan lau kategoria daude:
- Benjaminak: 2010an eta 2011n jaiotako tiratzaileak (M-10) Kimuak: 2008an eta 2009an jaiotako tiratzaileak (M-12)
 - Haurrak: 2006an eta 2007an jaiotako tiratzaileak (M-14)
 - Kadeteak: 2004an eta 2005ean jaiotako tiratzaileak (M-16)

Benjaminen eta kimuen kategorietan, lehiaketa mistoak egingo dira kasu guztietan. Haurren eta kadeteen kategorietan, lehiaketak sexuaren arabera bereiziko dira kasu guztietan.

- 4.2. Tiratzaile guztien sailkapen orokorra ezarriko da, kategorien arabera banatuta: Arabako eskola liga.
- 4.3. Liga berriz hasiko da urtero. Aurreko denboraldiko eskola ligako azken emaitzak erreferentzia gisa hartuko dira bakar-bakarrik denboraldi berriko lehenengo txapelketako pouleak osatzeko.
- 4.4. Tiratzaile bakoitza adinaren arabera dagokion kategoriako ligan bakarrik lehiatu eta agertu ahalko da.
- 4.5. Benjaminen eta kimuen kategoriako tiratzaileek 2 neurriko ezpata elektrikoak (81 cm-ko xafla) erabiliko dituzte; haurren eta kadeteen kategoriakoek, berriz, 5 neurriko ezpata elektrikoak (90 cm-ko xafla). Arma guztiak egoera onean izan behar dira, galga



eta pisu kontrolak gainditzeko.

- 4.6. Txapelketetan parte hartzeko, babes material hau nahitaez erabili beharko da:
 - Eskrimako jaka motza (gutxienez 350 N eta CE ziurtagiria dituen).
 - Eskrimako aurpegi babesa (gutxienez 350 N eta CE ziurtagiria dituen).
 - Eskrimako eskularrua.
 - Eskrimako galtza homologatuak eta galtzerdiak erabiltzea ez da nahitaezkoa izango, baina gomendagarria bai. Halakorik izan ezean, kirola egiteko galtza luzeak eskatuko dira.
 - Kirol oinetako itxiak.
- 4.7. Lehiaketa bakoitzean fase hauek izango dira: pouleak (sailkatzekoak) eta zuzenak (kanporatzekoak).
- 4.8. Pouleen fasean:
 - Kategoria bereko 10 tiratzaile baino gehiago badaude, erakunde antolatzaileak erabakiko du zenbat poule ezarri, dagoen denboraren eta espazioaren arabera, betiere Nazioarteko Eskrima Federazioaren (NEF) araudiari jarraituz.
 - Kategoria bereko 10 tiratzaile daudenean, bi poule egingo dira, itzuli bakarrekoak.
 - Kategoria bereko 5-9 tiratzaile badaude, erakunde antolatzaileak erabakiko du zenbat poule eta itzuli ezarri, dagoen denboraren eta espazioaren arabera.
 - Kategoria bereko 5 tiratzaile baino gutxiago badaude, beheagoko hurrengo kategorian jarriko dira, salbu eta benjaminak badira; horrelakoetan, kimuen kategorian jarriko dira. Haurren eta kadeteen kategorietan, sexu bereko 4 tiratzaile baino gutxiago badaude, kategoria bereko sexu biak elkartuko dira pouleen fasean. Bat egin ondoren ere 10 tiratzaile baino gutxiago badaude, aurretik azaldutako arauak jarraituko dira.
- 4.9. Zuzeneko kanporaketetan, kategoria guztiak adinaren eta sexuaren arabera bananduko dira, dagokien bezala:
 - Zuzeneko kanporaketa bat egingo da kategoria bakoitzeko.
 - Haurren eta kadeteen kategorietan, zuzeneko kanporaketak sexuaren arabera bereiziko dira kasu guztietan.
- 4.10. Pouleko borrokaldiek 5 ukitu egin arte edo, bestela, 3 minutu iraungo dute, bietatik lehenengo gertatzen dena. Berdinketa gertatuz gero, lehenetasuna zozkatu eta beste minutu bat gehituko da (NEFen araudiak hala ezartzen du lehiaketa ofizialetarako).
- 4.11. Pouleen ondoren, ez da inoiz inor kanporatuko.
- 4.12. Zuzeneko kanporaketen borrokaldiak honelakoak izango dira:
 - Haurren eta kadeteen kategorietan, borrokaldiek 15 ukitu egin arte iraungo dute edo, bestela, 9 minutu (3 minutuko tarteak, bata eta bestearen artean minutu bateko atsedenaldiarekin).
 - Benjaminen eta kimuen kategorietan, borrokaldiek 10 ukitu egin arte iraungo dute edo, bestela, 6 minutu (3 minutuko tarteak, bata eta bestearen artean minutu bateko atsedenaldiarekin).
 - Berdinketa gertatzen bada, 4.11 puntuko lehenetasun arauak aplikatuko dira kategoria guztietan.
- 4.13. Araudi honetan jasota ez dagoen guztirako, NEFen arau ofizialak aplikatuko dira.



- 4.14. Banakako lehiaketen amaierako sailkapenean, kategoria bakoitzean, lehenengo eta bigarren leku bana egongo da eta hirugarren leku bi. Lehenengo lekuan geratzen denari garaikurra emango zaio sari gisa; bigarrenetik zortzigarreneira bitartean geratzen direnentzat antolatzaileak aukera dezake garaikurra ala domina emango den, baina sariren bat nahitaez eman beharko da.
- 4.15. Txapelketak gehenez ere egun batekoak izango dira, eta antolatzaileak ordutegi desberdina ezar dezake kategoria bakoitzerako, izen-emate kopuruaren arabera.
- 4.16. Debekatuta dago coaching lanak egitea eskola tiratzaileekin borrokaldiek irauten duten bitartean. Borrokaldietan animatu daiteke, baina ezin izango da inolaz ere jarraibiderik edo agindurik eman atseden minutuetatik kanpo.
- 4.17. Eskola tiratzaile, eskola entrenatzaile edo eskola ordezkari lizentzia egokia duten pertsonak baino ezin izango dira ibili lehiaketa eremuan (bai eta epaileak eta zuzendaritzako teknikariak ere). Antolatzaileak mugatuko du lehiaketa eremu hori. Antolatzaileak, ahal duen neurrian, bertaratuko diren ikusleentzako tokia prestatu beharko du.
- 4.18. Entrenatzaileak pistara sar daitezke soil-soilik tiratzaileei entxufatzen eta desentxufatzen laguntzeko, eta atseden minutuetan baino ez. Ez dute inolaz ere baimenik izango borroka eremura sartu eta pistaren ondoan egoteko, jarraibideak emate aldera. Borrokaldian zehar, pistaren bukaeran egon behar dute, epaileen lana oztopatu ez dezaten.

5. artikulua.- Arabako Eskola Liga

- 5.1. Denboraldi bakoitzean lau proba ofizial egingo dira, Arabako eskola ligarako balioko dutenak. Gutxi gorabehera bi hilez behin egingo dira, betiere kontuan hartuta Arabako Eskrima Federazioaren egutegi ofiziala eta eragina izan dezaketen beste parametro batzuk. Probak hauek dira:
 - Arabako Eskola Ligako 1. torneoa.
 - Arabako Eskola Ligako 2. torneoa.
 - Arabako Eskola Ligako 3. torneoa.
 - Arabako Eskolako Lehiaketa. Lehiaketa azken horrek berez titulu bat osatuko du eta kategoria bakoitzeko irabazlea Arabako eskolarteko txapelduna izango da.
- 5.2. Arabako Eskola Ligak tiratzaile bakoitzak denboraldian zehar lehiaketa bakoitzean lortutako puntu guztiak batuko ditu. Lehiaketa bakoitzak balio sinplea izango du Arabako Eskola lehiaketak izan ezik, balio bikoitza izango baitu probarik garrantzitsuena delako. Liga amaitutakoan, kategoria bakoitzeko txapelduna Arabako Eskola Ligako txapeldun izendatuko da.

6. artikulua.- Lehiaketa federatuetan parte hartzea

- 6.1. Baimen federatua eskatzeko, nahitaezkoa izango da AFAn dagokion eredia aurkeztea, eta, hark, zer dagokion, baimenduko du edo ez. Behin baimena eskuraturik, Arabako Esgrima Federazioarekin eta RFEEekin izapidetuko da, bakoitzaren araudiaren arabera.
- 6.2. Baimen federatua eskatu ahal izango da lehiaketa federatuetan parte hartzeko, irizpide



hauen arabera:

- Hasiberrien mailako azken urteko tiratzaileek Criterium M-12 delakoan parte hartu ahalko dute, eta Estatuko M-14 Rankingeko hiru lehiaketatan ere bai, gehienez ere.
- Haurren mailako tiratzaileek Criterium 3 delakoan parte hartu ahalko dute, eta Estatuko M-14 Rankingeko hiru lehiaketatan ere bai, gehienez ere.
- Kadeteen mailako lehen urteko tiratzaileek Estatuko M-15 Ranking-eko 3 lehiaketatan parte hartu ahal izango dute, gehienez ere.
- Haurren eta kadeteen mailako tiratzaileek, gainera, nor bere kategoriako lagun arteko lehiaketa batean parte hartu ahal izango dute denboraldi osoan zehar.
- Benjamin mailako tiratzaileek eta hasiberrien mailako lehenbiziko urteko tiratzaileek inolaz ere ezingo dute lizentzia federaturik eskuratu.

6.3. Entitate bakoitzak erabakiko du bere tiratzaileentzako lizentzia federatua eskatu edo ez. Ez da izango mugarik eskaera kopuruan.

6.4. Lizentzia federatua eskuratu gero lehengo irizpide horien arabera, ez du horrek eragingo AFaren eskola kiroleko programa utzi beharra.

7. artikulua.- Laguntza banaketa, Eskola Kirolak

Honela banatuko du AEFk Arabako Foru Aldunditik jasotako dirua “Laguntza Eskola Kirola AEF” kontzeptuan:

- AEFk atxiki egingo du lehiaketa bakoitzetik jasotako zenbatekoaren % 8, konpentsatzeko antolakundeari eta tiratzaileei uzten dien materiala.
- Gainerakoa klub antolatzaileari sartuko zaio.
- Ekitaldia AEFk antolatzen duenean, beretzat gordeko ditu garaikurrengatik ordaindutako prezioa, aipatutako % 8a eta antolakuntzarekin zerikusia duen ustekabeko beste edozein gastu. Gainerako zenbatekoa banatu egingo da muntatze, desmuntatze eta arbitraje lanetan lagundu duten klubaren artean.
- AEFk denboraldi bakoitzean dauden kategorietan ematen dituen Arabako Eskola Ligako txapeldunen garaikurren kostua ere ordainduko da laguntza horiekin:
 - Federazioak ekitaldi bat edo gehiago antolatzen badu, jasotako zenbatekoetatik kenduko da muntatze, desmuntatze eta arbitraje lanetan lagundu duten klubaren arteko banaketa egin baino lehen.
 - Federazioak ez badu lehiaketarik antolatzen, garaikurren kostua klub antolatzaileentzako den dirutik aterako da, bermatuta betiere klub guztiek zenbateko bera jartzen dutela.

8. artikulua.- Araudi osagarria.

Arautegi honetan jaso ez diren alderdietarako, AEFen araudia aplikatuko da osagarri modura. Bestela, NEFen araudira joko da.

9. artikulua- Diziiplina arautegia.

Honako hau aplikatuko da: 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketetako diziiplina araubideari buruzkoa.



▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶

www.araba.eus

10. artikulua. Betebeharrak ez betetzea

- 10.1. Araudi hau nahitaez bete behar dute erakunde antolatzaileek eta parte hartzaileek aplikazio esparruan onartutako Arabako eskola lehiaketa ofizialetan (1. art.).
- 10.2. Antolatzaileak betetzen ez badu araudi honetako edozein puntu, artikulua edo atal, lehiaketa horretako edo geroko lehiaketetako antolakuntzatik bota ahal izango da klub hori, eta horren antolaketaren ardura AEFk edo hori egin nahi duen beste klub batek hartuko dute.